



2019 ekitaldiko “Gipuzkoako enpresa industrialetan zibersegurtasuna sustatzeko programa”ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu

1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)

8.1. Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak 2007ko mar txo aren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta diru lagun tzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak bete tze a dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz berezietan ezar tzen direnak ere.

8.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako xedatutakoaren arabera. Diruz lagundutako proiektuetako azken dokumentazioaren euskarazko bertsio bat eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneke eta Lurralde Orekeko Departamentuari.

8.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneke eta Lurralde Orekeko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publikitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneke eta Lurralde Orekeko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Emandako diru laguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak diru-laguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.8. Diru laguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, diru-laguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. eranskina 9. oinarria.)

Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru-laguntzaren xedeko jarduera zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

3.- Diru laguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)

11.1. Zibersegurtasuna da arlo bat, oraindik hasiberria dena, baina etorkizun hurbilean garrantzi estrategiko handia duena, eta ziurgabetasun eta arrisku handiak dituena.

Hori dela-eta, kontuan harturik laguntza-programak xede hau duela:

— Sustatzea hainbat proiektu eta ekimen burutzea, izaera esperimentalekoak, zibersegurtasunerako lehen hurbilpen bat egin dezaten enpresa txiki eta ertainek, hots, finantza-baliabide urriak dituzten enpresa txiki eta ertainek, zeintzuetan



zibersegurtasuna ez baita ulertzen lehentasunezko arlo bat bezala, ez direlako hautemangarriak eta ukigarriak inbertsio horren itzulkinak eta irabaziak;

— Susta-tze-a zibersegurtasunaren ikerketa eta garapenean aurrera egitea, hots, epe luzerako ikuskera batekin sortzen den ikerketa eta garapenean, zeinari kasu gehienetan gehitzen baitzaio entitateen tipologia (irabazi asmorik gabeak), halako prozesuek berekin baitakartzate gauzatze aldi luzeak, eta horrek, beraz, zaildu egiten du finantzaketa-eskuragarritasuna, entitateen barruan prozesu horiek garatzeko; eta.

— Sustatzea zibersegurtasun arloko gaitasun berriak garatzea, irabazi asmorik gabeko entitateak sentsibilizatuz eta trebatuz tematika batean, zeina oraindik hasiberria baita, eta sustraigabea, non garapen esperimental bat behar den, eta horregatik, finantzaketa espres/ad hoc bat behar den, proiektuak garatzeko.

Kontuan harturik, beraz, beharrezkoa dela hasiera batetik izatea finantzaketa bat, proiektuen garapena egingarri eta bideragarri egingo duena.

Eta kontuan harturik ezen, aurreko esperientzietan eta programetan, proiektuak maila handi batean gauzatu direla.

Aurretiatzko ordainketak egin ahal izango dira, berme beharrik gabe, ezinbesteko finantzaketa gisa, diru laguntza jaso duten jarduerak aurrera eraman ahal izateko, entitate onuradunak alde aurretik eskaturik, eta beharrezkoak justifikaturik. Aurrerakin horiek ordaindu ahal izango dira, baldin eta aurrekontu baliabideak badaude, eta emandako diru lagun-tza osoaren % 75 gainditzen ez badute, proiektua hasten denetik aurrera, eta behar bezala justifikatu beharko da hori.

Falta den kopurua proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2. Halaber, diru laguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, ordainketa berri bat egin ahal izango da, lehen egindako ordainketarekin gehituta diru laguntza osoaren % 85ekoa baino txikiagoa izan behar duena, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuri bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze eritmoarekin eta aurkeztutako zuriarekin bat baldin badator.

11.3. Salbuespen gisa, emandako diru laguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena, diruaren legezko interesa gehituta izango da.

Abala indargabetu egingo da diru laguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hala bada, ordaindu baino lehen aurkeztu beharreko justifikazioaren barruan, eguneratutako egiaztagiria sartuko dira. Agiri horien ordean, berariaz baimendu ahal izango du Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeko Departamentua, kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak egokiak diren datuak zuzenean eman diezazkion.

11.5. Ordainketa aurreratua eginez gero, erakunde onuradunak pasibo gisa adierazi beharko du jasotako aurrerakina enpresaren kontabilitatean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuli beharko dio aurrerakin horren itzulketa erabitzen duen ebazpenean horrela ezartzen bada.

(Ikusi <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/zibersegurtasuna>)

4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 12. oinarria)

12.1. Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkeztu duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtzarik gabe lotuta daudenean.

12.2. Langile-kostuak direnean, proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.



12.3. II. eranskinean zehaztutako proiektuetan:

- Ez dira hautagarriak izango barneko langileen kostuak.
- Kanpoko langileen kostuak hautagarritzat joko dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.
- Ez dira hautagarriak izango zeharkako kostuak edo orokorrak.

12.4. III. eranskinean zehaztutako proiektuetan, hauek izango dira kostu hautagarriak:

a) Langileen zuzeneko kostuak (erakunde eskatzailearen plantillako langileak: ikertzaileak, teknikariak, eta ikerketa-jardueran enplegatutako beste langile laguntzaile batzuk), proiektuan diharduten neurrian.

Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiri bat aurkeztuko da.

Langileen zuzeneko kostuak hautagarritzat joko dira, 35 euro/orduko, gehienez. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko langileen zuzeneko kostuen kasuan, kostu hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.

b) Kanpoko iturrien lizentziaren bidez lehia beteko baldintzetan eskuratutako kontratu ikerketako, ezagupenetako eta patenteetako kostuak, baita proiektura eskusiboki bideratutako aholkularitzako eta zerbitzu baliokideetako kostuak.

Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiri bat aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarritzat joko dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.

- c) ETEentzako jabetza industrialeko eskubideen kostuak.
- d) Kostu orokorrak edo zeharkakoak; zeharkako kostu gisa kontatuko da langileen zuzeneko kostu diruz lagungarrien % 15.
- e) Ustiapeneko gastuak, barne hartuta proiektutik zuzenean eratoritzen diren material, hornidura eta antzeko produktuen kostuak.
- f) Tresneria eta material kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta bitartean; baldin eta tresneria eta materiala ez badira erabiltzen proiekturako haien bizitza baliagarri guztian, orduan, diruz lagungarritzat joko diren bakarrak proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio kostuak izango dira, oro har onartutako kontabilitate printzipioen arabera kalkulatuak.

Zenbaki honetan aipatutako gastu diruz lagungarriak interpretatzerakoan, kontuan hartuko da zer dioen 2. eta 25. artikuluetan Kategorien arabera Salbuespen Erregelamendu Orokorrak (651/2014 zk.).

12.5. IV. eranskinean zehaztutako proiektuetan:

Barneko langileen kostuak:

— Barneko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko, gehienez, Gipuzkoan kokatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko entitateentzat.

— Barneko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 35 euro/orduko, gehienez, gainerako entitateentzat.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko, gehienez.

Zeharkako kostuak edo orokorrak, kostu hautagarri bezala kontatuko direnak, justifikatu beharrik gabe, barneko langileen zuzeneko kostu diruz lagungarrien %15.

12.6. Kasu guztietan, ez dira hautagarriak izango 400 eurotik beherako kostuak.

12.7. Gastu hautagarriak izango dira IV. eranskinaren barruan garatutako proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta mantenuiei dagozkienak bakarrik.



12.8. Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsoneri edo erakundeei dagozkienak, salbuespen hauekin:

— Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean; eta

— Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeko Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arau-tzaile zehatzetan adierazitako moduan.

12.9. Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, Departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, eskumena egotea, eta, merkatuko balioa inoiz ere gainditu gabe.

5.- Diru laguntza zurtzea. (I. eranskina 13 oinarria.)

13.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du erakunde onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2. Diru laguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

13.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan erakunde onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Jarduera memoria bat, diru laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzeko sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

(Ikusi <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/zibersegurtasuna>)

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zurtzeko, honako eduki hau izango duena:

— Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Diru laguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira.

— Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo diru-laguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.

(Ikusi <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/zibersegurtasuna>)

— Nominak eta 190 erdua eta TC1/TC2 agiriak, langileen barruko gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen kasuan, TC1/TC2 agirien ordean, Autonomoen Araubideko kotizazio-buletinen kopia. Kooperatiba-sozietateen kasuan, kooperatibako bazkideen kotizazio-ziurtagiria, Gizarte Segurantzako dagokion erakunde laguntzaileak emana.

— Orduen txostenak, erakunde eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta.

(Ikusi <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/zibersegurtasuna>)

— Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluarri jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri



bereziengatik merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua diru laguntza eskatu aurretik egin ez den.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan edota entitate laguntzailekoetan egunean daudela egiaztatzen duen eguneratutako dokumentazioa, indarrean dagoena. Dokumentazio horren orde, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeko Departamentuari baimena eman dakiok berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik.

— Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.5. Diru laguntza zuzitzeko ezarrita dagoen epea oinarri honetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe igarotzen bada, eskudun den organoak 15 eguneko epea eman ahalko dio erakunde onuradunari dokumentazio hori aurkezteko. Epe gehigarri hori zuzigarriak aurkeztu gabe igarotzen bada, 15. oinarrian aurreikusten diren ondorioak aplikatuko dira.

13.6. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez diru laguntzaren xedeko izan den jardura egin izanaren zuzigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiria. Zuzigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

13.7. Oinarri honetako ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako diru laguntza baino txikiagoa izan dela, diru laguntza doitu egingo da. Diru laguntza zuzitzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo diru-laguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, diru laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako diru laguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 14. oinarria.)

14.1. Diruz lagundutako jardura burutzeko ezarri den epea amaitu baino hilabete lehenago, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jardura osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jardura burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta diru laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2. Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeko Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du diru laguntza emateko ebazpena, erakunde interesatuari aurrez entzunda eta fondoak aplikatu aurretik, diru laguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

14.3. Entitate onuradunak, diru laguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeko, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo eta Lurralde Orekeko Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten; dena den, horrek ez du onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

7.- Proiektuak gauzatzeko data.

Erakunde onuradunek **2020ko MAIATZAREN 13rako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.



INFORMAZIO GEHIAGO

- "Gipuzkoako enpresa industrialetan zibersegurtasuna sustatzeko programa"ren 2019ko deialdia (2019ko martxoaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 62 zk. 2019ko apirilaren 1ean).

Oinarriak 2018-07-10ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartu ziren (GAO 2018/137 zk.) eta 2019-03-20ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz aldatu dira (GAO 2019/62zk.).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.).